


Urte berri on!

Urte berri on!! Urte latza utzi dugu atzean, eta abiatu berri dugun hau ere ez da erraza izango. Baina orain arte egin dugun moduan, Ikastola osatzen dugun ikasle, langile eta familia guztion arteko elkarlanari esker ziur gaude aurre egingo diogula. 2021 urte zorionsua opa dizuegu guztioi!



Segurtasun-neurrien gogorazpena

COVID 19aren aurkako segurtasun-neurri nagusiak gogora ekarri nahi dizkizuegu.



- Ikasleek **temperatura hartuta** etorri behar dute etxetik.
- Bakoitzak bere Zainkit-a ekarri behar du egunero (bi musuko, gel hidroalkoholikoa eta ur botilla).
- **Sarrera-irteeren antolaketa** errespetatzen jarraitu behar dugu.
- Etxean **sintomak** agertuz gero ez bertaratzeko deia egiten dizuegu, eta tutorearekin harremanetan jartzeko osasun-egoeraren berri emateko.
- Aurten **ezin dugu ikastolan beharrezkoa dena baino denbora gehiago igaro**, pilaketak saiheste aldera.

San Sebastian eguna

Urtarrilaren 19an, asteartea, SAN SEBASTIAN EGUNA ospatuko dugu ikastolan, baina aurtengoa ospakizun desberdina izango da osasun-egoera dela eta. Ikastola barruan egingo dugu ospakizuna, eta segurtasun-neurri guztiak errespetatuko ditugu. Gainera, aurten familiak ezingo zarete danborrada ikustera etorri, baina Atariaren bitartez emango dizuegu ospakizunaren berri. [Zirkularra](#).



OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. Goizpasa. HH5C-D (Amaia-Ixiar) urtarrilak 12. HH5A-B (Ainere-Miren) urtarrilak 13.
- **DBH1:** Teknologia berrien inguruko saioak gelaka.
- **DBH2:** Jasone Osororen bisita.
- **DBH:** IAZKO pendienteen probak. Urtarrilak 13. 17:00.
- **BATX:** Orientazio akademikoa. Azalpen-bideoak ikasleen Classroomean.

